



2016ko hirugarren hiruhilekoaren emaitzak

% 76,1 hazi da Euskaltel Taldea 2016ko urtarriletik irailera

44,9 milioi euroko irabazi garbia izan du Euskaltel taldeak 2016ko lehen bederatzi hilabeteetan

Hazten jarraitzen du Euskaltel Taldeak: diru-sarrera handiagoak, bezero gehiago, emaitza hobeak

- *430,4 milioi euroko diru-sarrera izan du Euskaltel Taldeak —Euskaltel eta R— 2016ko ekitaldiko hirugarren hiruhilekoan; 2015eko hirugarren hiruhilekoan, berriz, 244,4 milioikoa. Honenbestez, % 76,1ekoa izan da hazkundera.*
- *Ustiapen-irabazi gordina (EBITDA) 209,5 milioi eurokoa izan da, hots, % 79,6 igo da aurreko ekitaldiko epe berekoarekin alderatuta (116,7 milioi euro). Diru-sarrerekiko marjina % 48,7ra igo da, 2015eko hirugarren hiruhilekokoarekin alderatuta (% 47,7).*
- *Cash Flow Operatibo doituia 142,1 milioikoa izan da; aurreko urteko epe berean, berriz, 88,1 milioikoa. Beraz, % 61,3 hazi da. Honenbestez, aitzindari izaten jarraitzen du Euskaltelek, European, kutxa-bihurtzearen ratioari dagokionez (% 67,8).*
- *Urteko lehenbiziko bederatzi hilabeteetako irabazi garbia 44,9 milioi euro izan da; iazko hirugarren hiruhilekokoak, berriz, negatiboa (-3,3 milioi euro), burtsara ateratzeak eragindako aparteko gastuak zirela medio.*
- *Aho batez onartu du Euskaltelen administrazio-kontseiluak 2016ko emaitzen konturako dibidendu hau banatzea: 0,15 euro akzioko, hots, 22,77 milioi euro gordin.*
- *Eutsi egiten dio Konpainiak dibidenduak banatzeko politikari, burtsara ateratzean eta R erosteko kapitala handitzean argitaratutako orrietan iragarri zuen hari alegia: ekitaldi bakoitzeko etekin garbiaren arabera ohiko dibidendua ordaintzea, lege-betekizunek agintzen duten kenketa eginda (irabazi garbiaren % 10 erreserba legalerako gordetzea).*

- **2017ko lehen seihilekoan egitekoa den Akziodunen Batzar Orokorrean erabakiko da zenbatekoa izango den 2016ko konturako azken dibidendua.**

Bilbon, 2016ko urriaren 27an. Gaur aurkeztu ditu Euskaltel Taldeak 2016ko hirugarren hiruhilekoko emaitzak. Galiziako R operadorea erosi ondorengo lehenbiziko bederatzi hilabeteen datu bateratuek adierazten dutenez, gora egin dute taldearen bezero-kopuruak, errentagarritasunak eta diru-sarrerek; 44,9 milioi eurokoa izan da irabazi garbia, aurreko ekitaldiko epe berekoa baino 48,3 milioi handiagoa (3,3 milioi euroko galera izan zuen konpainiak aurreko ekitaldiko epe berean, burtsara ateratzeak eragindako gastuak zirela eta).

Aurtengo hirugarren hiruhilekoan, 430,4 milioi euroko diru-sarrerak izan ditu Euskaltelek; aurreko urteko hirugarren hiruhilekoan, berriz, 244,4 milioiokoa. Beraz, % 76,1koa izan da igoera. Epe horretan R-k izandako diru-sarrerak ere alderaketan sartuz gero, % 2,2ko hazkundera izan du taldeak. Etxebizitzen merkatuan izan den igoera (% 4,4) du oinarri emaitza horrek, zeinak berretsi egiten baitu merkatu horretan eta SOHO segmentuan erabili dugun estrategia komertzialaren egokitasuna. Balio handiko hiru eta lau produktuko paketeetarako bezero berriak lortzea du helburu nagusi estrategia horrek, eta lehendik ditugun bezeroen bizi-zikloaren balioa ahalik eta gehiena handitzea.

Bilakaera horrek garbi adierazten duenez, nabarmen hazi dira emaitza operatiboak: EBITDA 209,5 milioi euro ingurukoa izan da; aurreko ekitaldikoa, berriz, 116,7 milioiokoa (% 79,6ko igoera). 2016ko urtarriletik irailera bitarteko epean Euskaltelek eta R-k izandako EBITDAk batuta, % 5,7 hazi da taldearen EBITDA. Diru-sarrerekiko marjina % 48,7ra igo da, 2015eko hirugarren hiruhilekokoarekin alderatuta (% 47,7).

Atzo jakinarazi zuen Euskaltelek dibidenduak banatuko dituela akziodunen artean. Sozietate kotizatu gisara egiten duen lehenbiziko dibidendu-banaketa da, 2015eko uztailaren 1ean kapital-merkatura sartu zenetik. Urte historikoa izan zuen 2015a Euskaltelek: burtsara atera zen, eta Galiziako operadore nagusiarekin, R-rekin, bat egin eta Espainiako iparraldeko operadore nagusi bihurtu zen. Aho batez onartu zuen Euskaltelen administrazio-kontseiluak, atzoko bileran, dibidendu hau banatzea 2016ko emaitzen kontura: 22,77 milioi euro gordin, hots, 0,15 euro akzioko.

Eutsi egiten dio Konpainiak dibidenduak banatzeko politikari, burtsara ateratzean eta R erosteko kapitala handitzean argitaratutako orrietan iragarri zuen hari alegia: ekitaldi bakoitzeko etekin garbiaren arabera ohiko dibidendua ordaintzea, lege-betekizunek agintzen duten kenketa eginda (irabazi garbiaren % 10 erreserba legalerako gordetzea).

2017ko lehen seihilekoan egitekoa den Akziodunen Batzar Orokorrean erabakiko da zenbatekoa izango den 2016ko konturako azken dibidendua.

Euskaltelen kontseilari delegatu Francisco Artechek aurkeztuko ditu hirugarren hiruhilekoaren emaitzak, gaur arratsaldeko 16:00etan *call conference* bidez jendaurrean egingo duen emaitza-aurkezpenean.

Hazkunde sendoa eta diru-iturriak aurkitzeko ahalmen handia

Cash Flow Operatibo doitua 142,1 milioiokoa izan da; aurreko urteko epe berean, berriz, 88,1 milioiokoa. Beraz, % 61,3 hazi da. Honenbestez, aitzindari izaten jarraitzen du Euskaltelek, European, kutxa-bihurtzearen ratioari dagokionez (% 67,8).

Batez ere faktore hauek ekarri dute kaxa-fluxuaren bihurtzearen hobekuntza: belaunaldi berri bateko zuntz-sare propioa edukitzeak, eta operadorearen negozio-estrategiak. Horri esker, bezeroak erakartzeko eta lehendik ditueni eusteko erabiltzen ditu konpainiak bere kapital-inbertsio nagusiak.

2016ko irailaren amaieran, 1.271 milioi eurora jaitsia zen finantza-zorra. Beraz, palanka-efektu finantzarioa azken 12 hilabeteetako EBITDAren halako 4,4 izan da; 2015eko ekitaldiaren amaieran, berriz, 5,1. Konpainiaren kalkuluen arabera, kontuan izanik diru-iturriak aurkitzeko Euskaltelen ahalmen handia, 2016ko ekitaldia amaitzean EBITDArekiko zor-ratioa 4,3tik beherakoa izatea espero du operadoreak, hots, 1.240 milioi euro ingurukoa.

Euskaltelen bezero diren etxeak, 549.000; kontratatutako produktukopurua, 1,88 milioi

Taldearen negozioaren egungo datu operatiboak eta Euskaltelen eta R-ren 2015eko irailaren amaierako negozioen batura alderatuta, inflexio-puntua izan du Euskaltel Taldeak, eta **joera-aldaketa** sektoreak azken urteotan izan duen ibilbidean, hazi egin baita etxeko sektoreko bezero-kopurua.

2016ko lehen bederatzi hilabeteen amaieran, 548.945 bezero zituen Euskaltel taldeak etxeko segmentuan, aurreko urteko bigarren seihilekoan baino % 0,2 gehiago. Eutsi egion dio, beraz, urtearen lehen hiruhilekoan hasitako hazkuntza-joerari, eta nabarmen hazi da produktu hauen kontratazioa: ordainpeko telebistarena eta mugikorrena.

Orotara, **1,88 milioi produktu dituzte etxeko sektoreko bezeroek, hau da, 71.981 produktu berri saldu dira sektore horretan 2016ko urtarrilaren eta irailaren artean.**

Bestalde, nabarmen egin du gora balio handiko produktuen kontratazioak bezero berrien artean, Konpainiaren produktuak bateratzeko eta zerbitzuak paketea eskaintzeko estrategia hori dela eta: erabiltzaile berrien % 65,2k hiruzpalau produktuko zerbitzuak kontratatzen dituzte; aurreko ekitaldiko epe berean, % 62,1ek.

Mugikorreko 74.000 linea gehiago, eta 24.500 bezero berri ordainpeko telebistak

Telefonia mugikorreko 74.000 linea gehiago zituen Euskaltelek 2016ko lehen bederatzi hilabeteen amaieran, hots, aurreko ekitaldiko data berean baino % 10,8 gehiago. Sendotu egin da, honenbestez, gure operadorearen aitzindaritza merkatu-segmentu horretan. **Mugikorraren hedapen-ratioaren errekorra ere aipatzekoa da; izan ere, 2016ko hilabeteotan, Euskaltel Taldearen bezeroen % 76,2k daukate kontratatuta gure operadorearekin telefono mugikor bat, gutxienik.**

Etxeko segmentuko hazkundearen sendotasunak beste euskarri bat ere izan du: **ordainpeko telebista daukan taldeko bezero-kopuruaren areagotzea (24.500 linea berri, 2015eko hirugarren hiruhilekoan baino % 10,1 gehiago).** Bestalde, telebistako bezeroen kopuruak ere etengabe egin du gora, eta bezero-kopuru osoaren % 55era iritsi da 2016ko hirugarren hiruhilekoan; duela urtebete, % 47 zen portzentajea.

Euskaltel – Komunikazioa
94-4011229
komunikazioa@euskaltel.com

